



GURASOAK

ESKOLA KIROLA EREMU SEGURUA

- Ikastera gatoz, beraz, animatu, babestu eta gauza positiboak esan. Utzi azalpen tekniko alde batera eta ez ditzagun haurrak presionatu. Utzi hurrei hanka sartzen, esperimentatzen.
- Arreta jarri norbere seme-alabetan eta gainontzekoetan. Taldekideekin jolastu dezatela eragin eta aurkariei ere jolasten utzi diezaietela adierazi. Lanketa egin taldekide guztiei pasatzen ez dieten kasutan. Ez digu ezertarako balio taldekide batek 5 gol sartzeak beste batek baloirik ukitu ez badu.
- Epaileak ere ikasten ari dira, utzi lasai erabakiak hartzen, hanka sartzen. Ez da lan makala hainbeste jenderen erdian ardura hori hartzea, beraz, babestu eta konfidantza eman. Ez dugu onartzen epailearen erabakiez kexaka aritzea. Gure taldeko gurasoren bat hasten bada ere moztu ditzagun halako jarrerak.
- Partidu hasieran elkartu bi taldeak eta entrenatzaileak eta erreparasatu puntu hauek, gogorarazi ikasteko gaudela eta elkar zaindu behar garela talde, entrenatzaile, guraso eta epaileak.

ESKERRIK ASKO ZUEN LANAGATIK